



EUSKAL  
ITSAS  
MUSEOA MUSEO  
MARÍTIMO  
VASCO



ETORKIZUNA  
ORAIN



## ***Euskal Itsas Museoak eta Albaolak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Euskal Herriko Ontzi Tradizionalen Bildumako, Guipúzcoa itsas salbamenduko ontziaren zaharberritzea aurkeztu dute.***

- 1926an Donostian eraiki zen ontzi iraultzailea, estatuko lehen salbamendu txalupa motorizatua da.
- Zaharberritzea *Hondotik Ondarera* proiektuaren parte da. Proiektu hori, balio handia duten 40 euskal ibai- eta itsas- ontzi tradizionalak osatzen dute.

2021ean hasitako zaharberritze prozesu luze baten ondoren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Euskal Herriko Ontzi Tradizionalen Bildumatik datorren Guipúzcoa salbamendu ontziaren zaharberritzea aurkeztu dute gaur, Albaola Itsas Kultur Faktorian.

Prentsaurrekoan Xabier Agote Albaolako presidentek, Xabier Alberdi Euskal Itsas Museoko zuzendariak eta Goizane Álvarez Kultura, Lankidetzeta, Gazteria eta Kirol diputatuak parte hartu dute.

Bertaratutakoei ongietorria eman ondoren, **Xabier Agotek** zera esanez eman zion irekiera prentsaurrekoari: “Guipúzcoa-k, bizitza asko salbatu ondoren, ontzia salbatzeko unea iritsi da. Horretarako, ontzia zaharberritu da, eta jatorrizko itxura berreskuratu du, urteetan zehar izan zituen eraldaketa ugarien ondoren”.

Ondoren, **Xabier Alberdiren** txanda iritsi da, eta bere araberea "Bildumako bitxi nagusietako bat da, laster mende bat beteko duen ontzi historikoa, bere garaian nazioartean iraultzailea izan zen diseinuarekin eraikia".

Amaitzeko, Kultura, Lankidetzeta, Gazteria eta Kiroletako diputatu **Goizane Álvarezek** azaldu duenez, datorren urteari begira, GUIPÚZCOA hitzak 1.000 urte betetzen dituenean, hainbat ekitaldi antolatu nahi ditu zuzentzen duen sailak, eta Itsas salbamenduko ontzia izango da gure lurraldeko “kultur nortasuna irudikatzen duen ikurra”. “Hori da gure ondarea, gure nortasunaren sinboloa, Gipuzkoan eta Euskal Herrian oso presente dagoen espiritua: oraina hobetzeko eta eraldatzeko horizontera begiratzen duten ekintzaileena, gizarte oso ireki baten barruan, batez ere itsasoari esker, aspalditik konektatu baikaitu beste kultura batzuekin”, adierazi du. “Esan gabe doa GUIPÚZCOA ontziak balioa ematen diola Gipuzkoak ontzigintzaren arloan egindako ekarpenari, gure lurraldea proiektatzeko eta aintzatesteko funtsezko lana baita”.

*Guipúzcoa*, Donostiako portuan eraiki zen, Euskal Itsas Museotik metro gutxira, 1926an. Estatuko motordun salbamenduko lehen txalupa izan zen, eta, bere ezaugarriak eta diseinuari esker, ospe handia izan zuen nazioartean bere garaian. Gainera, ontzia *Hondotik Ondarera* proiektuaren parte da. Proiektu horren helburua euskal ontzi tradizionalak zaharberritzea eta horiei balioa ematea da, eta bilduma osatzen duten 40 ontzien artean dago.



EUSKAL  
ITSAS  
MUSEOA MUSEO  
MARÍTIMO  
VASCO



ETORKIZUNA  
ORAIN



## ***Hondotik Ondarera***

Guipúzcoa ontziaren zaharberritzea *Hondotik Ondarera* proiektuaren parte da. Gipuzkoako Foru Aldundiaren Euskal Herriko Ontzi Tradizionalen Bilduma zaharberritu, mantendu, handitu eta balioesteko proiektua da, Euskal Itsas Museoaren eta Albaolaren artean ezarritako akordioan oinarrituta.

Alde batetik, Euskal Itsas Museoaren zeregina itsasontzien ikerketa dokumentala egitea da eta, ondoren, horien balioa nabarmentzea da, erakusketak, monografiak eta bestelako museo-ekintzak eginez. Bestalde, Albaola arduratzen da bildumako ontziak zaharberritzeaz eta mantentzeaz, eta zaharberritze horren berezko lanei balioa emateaz.

Bilduma hau 40 euskal ontzi tradizionalak osatzen dute, Euskal Herriko itsas ontzigileen mendeetako tradizioaren eta haien itsas tipologia tradizionalaren adierazgarri. Gehienak balio handiko itsasontziak dira: gabarrak, batelak, txalupak, motorrak edo merluzerak.

## ***Guipúzcoa: ontzi berritzailea***

*Guipúzcoa* salbamendu-ontzia 1925ean eraiki eta 1926ko urtarrilean uretaratu zuten Feliciano Gamboa y Compañía-ko ontzigileek, 1879an Donostian sortutako Itsas Salbamenduen Elkarte Humanitarioaren enkarguz. 11,90m-ko luzera eta 2,90m-ko zabalera duen ontzi motorduna, estatuko salbamendu motorduneko lehen ontzia da. 1974ra arte egon zen jardunean, eta, ondoren, aisialdirako ontzi gisa aritu ondoren, XX. mendearen amaieran, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Euskal Ontzi Tradizionalen Bilduman sartu zen.

*Guipúzcoa* egositako saihetsak eta oholza bikoitza duen kasko leuna du. Aire-ganbera estankoaz gain, txopako ganga baten barruan dauden bi helize eta lema ditu. Jatorrizko propulsiota 24HP-ko Yeregui Hermanos gasolinazko bi motorrek egiten zuten, helize banari eraginez.

## **Zaharberritzea Albaola Itsas Kultur Faktorian**

Guipúzcoa 2010eko apirilean iritsi zen lehen aldiz Albaola Itsas Kultur Faktoriara, eta, lehen fase horretan, arrantzarako eta aisialdirako itsasontzi bihurtzeko 1975etik aurrera gehitu zitzaizkion elementuak kendu zizkieten: kabina, altxatako kubiarta, originalak ez ziren kaskoko metalezko elementuak, eta bereziki motorrak, haien pisuak kaskoan deformazioak sor zitzaizkela.

2021eko abuztuan hasi zen ontziaren zaharberritze osoa, eta "Itsas antzokia" espazioaren iparraldean jarri zen, Albaola Itsas Kultur Faktoriako bisitari guztiek ikusteko moduan.

Guipúzcoa-k nabigatuko ez zuela erabaki ondoren, zaharberritze kontserbatzaile bat egiten hasi ziren, 1926an egindako eraikuntzaren jatorrizko elementu gehienak berreskuratu asmoz. Egoera txarrean zeuden zatiak kendu eta zurezko pieza osasuntsuekin ordezkatu ziren. Zati garrantzitsuenetako bat saihetsak aldatzea izan zen: batzuk erabat ordeztu ziren,



EUSKAL  
ITSAS  
MUSEOA MUSEO  
MARITIMO  
VASCO

Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Foro Auzolan, 100  
48901 Leizor



ETORRIZUNA  
ORAIN



eta beste batzuei, berriz, errefortzu-saihets bat gehitu zitzairen jatorrizkoetara. Baoak, barandak, motor kabina, kubieta eta galdutako goikalde osoa berreraiki dira.

Saul Hoffmann, Albaolako ontzigintza tradizionalako nazioarteko eskolako irakaslea izan da zaharberritzeaz arduratu den instruktorea, une oro jarraipen-batzorde baten laguntzaz. Eskolako apendiz guztiek lan honetako fase batean edo bestean parte hartzeko aukera izan dute. Azpimarratzekoa da, mundu osotik etorritako boluntarioek zein azken hiru urteetako apendiz izateko hautagaiek ere, zaharberritze lanean aktiboki parte hartu dute, euskal itsas ondarearen berreskurapenean beren aletxoak utziz.

Jatorrizko planorik gabe lan egin izana eta itsasontziari buruzko dokumenturik gordeta ez izatea erronka eta ikasteko aukera eskaini dio proiektu honetan parte hartu duen orori. Garaiko argazkietan oinarritutako aurre-ikerketa prozesu bat egon zen, beharrezko konponketak egin ahal izateko jatorrizko neurriak ateratzeko. Ikerketa hori Kutxa Fundazioaren Kutxateka bilduman gordetako balio handiko irudiei esker egin ahal izan zen.

Bide luze baten ondoren, Guipúzcoa Pasaia Itsas Festibalean egongo da ikusgai, maiatzaren 9tik 12ra, Pasai San Pedroko lonjan. Bertan, lehen aldiz, Albaola Itsas Kultur Faktorian egindako zaharberritzea ikusi ahal izango da.

## El Museo Marítimo Vasco y Albaola presentan la restauración de la embarcación de salvamento marítimo *Guipúzcoa* perteneciente a la *Colección de Embarcaciones Tradicionales del País Vasco* de la Diputación Foral de Gipuzkoa

- La revolucionaria embarcación, construida en San Sebastián en 1926, ha sido la primera lancha de salvamento motorizada del estado.
- La restauración forma parte del proyecto *Hondotik Ondarera* compuesta por 40 embarcaciones tradicionales vascas fluviales y marítimas de gran valor.

10.04.2024. Se ha presentado hoy en Albaola Itsas Kultur Faktoria la restauración de la embarcación de salvamento *Guipúzcoa*, proveniente de la *Colección de Embarcaciones Tradicionales del País Vasco* de la Diputación Foral de Gipuzkoa, tras un largo proceso de restauración comenzado en 2021. Han intervenido en la rueda de prensa el Presidente de Albaola Xabier Agote, el Director del Museo Marítimo Vasco Xabier Alberdi y la Diputada de Cultura, Cooperación, Juventud y Deportes Goizane Álvarez.

Tras dar la bienvenida a los asistentes **Xabier Agote** abrió la rueda de prensa indicando que “tras haber salvado muchas vidas, ha llegado el momento de que el *Guipúzcoa* fuera salvado. Para ello se ha procedido a restaurar la embarcación recuperando su aspecto original después de las múltiples transformaciones que sufrió a lo largo de los años”.

A continuación, ha llegado el turno de **Xabier Alberdi**: “Se trata de una de las principales joyas de la colección, una embarcación histórica que muy pronto cumple un siglo, construida con un diseño que para su tiempo fue revolucionario a nivel internacional”.

Para finalizar, la Diputada de Cultura, Cooperación, Juventud y Deportes, **Goizane Álvarez**, ha explicado que, de cara al año que viene, cuando se cumplan los 1.000 años de la palabra GUIPÚZCOA, desde el departamento que dirige, quiere organizar diversos actos y la embarcación de salvamento Marítimo será “el símbolo que representa la identidad cultural” de nuestro Territorio. “Ese es nuestro patrimonio, símbolo de nuestra identidad: un espíritu muy presente en Gipuzkoa y el País Vasco: el de las y los emprendedores que miran al horizonte para mejorar y transformar el presente, dentro de una sociedad muy abierta, sobre todo por el mar, que nos ha conectado desde muy temprano con otras culturas”, ha señalado. A continuación ha asegurado que, “sin lugar a dudas, la embarcación GUIPÚZCOA pone en valor la contribución guipuzcoana a los logros en materia de construcción naval, una labor crucial para la proyección y el reconocimiento de nuestro Territorio”.

La *Guipúzcoa* fue construida en el puerto de San Sebastián, a escasos metros del propio Museo Marítimo Vasco, botándose en el año 1926. Se trata de la primera lancha de salvamento motorizada del estado y, gracias a sus características y diseño, gozó de gran reconocimiento a nivel internacional en su época. Además, la embarcación forma parte del proyecto *Hondotik Ondarera* que tiene como objetivo la restauración y puesta en valor de

embarcaciones tradicionales vascas y es una de las 40 embarcaciones que conforman la colección.

### ***Hondotik Ondarera***

La restauración de la embarcación *Guipúzcoa* forma parte de *Hondotik Ondarera*, un proyecto para la Restauración, Mantenimiento, Conservación, Ampliación y Puesta en valor de la *Colección de Embarcaciones Tradicionales del País Vasco* perteneciente a la Diputación Foral de Gipuzkoa y basado en el acuerdo establecido entre el Museo Marítimo Vasco y Albaola.

Por un lado, la labor del Museo Marítimo Vasco consiste en la investigación documental de las embarcaciones y su posterior puesta en valor mediante la producción de exposiciones, monografías y otras acciones museológicas. Por otro lado, Albaola es el encargado de la restauración y mantenimiento de las embarcaciones de la colección y la puesta en valor de las labores propias de dicha restauración.

Esta colección está compuesta por 40 embarcaciones tradicionales vascas exponentes de la tradición de siglos de los constructores navales del País Vasco y de su tipología naval tradicional. La mayoría son embarcaciones de gran valor; como gabarras, bateles, botes, motoras o merluceras.

### ***Guipúzcoa: Una embarcación revolucionaria***

La embarcación de salvamento *Guipúzcoa* fue construida en 1925 y botada en enero de 1926 por el constructor Feliciano Gamboa y Compañía por encargo de la *Sociedad Humanitaria de Salvamentos Marítimos*, instituida en San Sebastián en 1879. Esta lancha motorizada, de 11,90m de eslora y 2,90m de manga, ha sido la primera lancha de salvamento motorizada del estado. Permaneció en activo hasta 1974 y tras servir posteriormente como embarcación de recreo, ingresó a finales del siglo XX en la *Colección de Embarcaciones Tradicionales Vascas* de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

El *Guipúzcoa* posee un casco con cuadernas cocidas y forro doble con tablazón a tope y está dotado con cámaras de aire estancas y válvulas de desagüe rápido. Tenía una quilla en hierro fundido que le permitía auto enderezarse en caso de vuelco. Sus dos hélices y el timón se alojan en el interior de una bóveda a popa para estar más protegidas y la propulsión originaria se realizaba por dos motores de gasolina Yeregui Hermanos de 24HP que accionan sendas hélices.

### ***Restauración en Albaola Itsas Kultur Faktoria***

El *Guipúzcoa* llegó por primera vez en abril del año 2010 a Albaola Itsas Kultur Faktoria, donde, en una primera fase, se le retiraron los elementos que fueron añadidos después de 1975 para convertirlo en un barco de pesca y recreo: la cubierta sobreelevada y la cabina, así como elementos metálicos del casco que no eran originales, especialmente los motores instalados en los años setenta en sustitución de los originales, cuyo peso podía generar deformaciones en el casco.



EUSKAL  
ITSAS  
MUSEOA MUSEO  
MARÍTIMO  
VASCO

Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Foro Larrikeria, Gasteiz  
eta Foru Departamentua



ETORKIZUNA  
ORAIN



Pero fue en agosto de 2021 cuando comenzó la restauración completa del barco y fue colocada en el lado norte del espacio “Itsas antzokia”, para que el proceso fuera visible para todos los visitantes de Albaola Itsas Kultur Faktoria.

Tras decidir que el Guipúzcoa no iba a volver a navegar, se empezó a hacer una restauración conservativa, recuperando el mayor número posible de los elementos originales de su construcción en 1926. Se quitaron las partes que estaban en mal estado y se sustituyeron por piezas de madera sana. Una de las partes más importantes fue cambiar las cuadernas: unas se reemplazaron por completo, mientras a otras se les añadió una cuaderna de refuerzo a las originales. Se han reconstruido los baos, la cabina de motores, la cubierta y toda la parte superior que se había perdido, como las barandillas.

Saul Hoffmann, instructor de la escuela internacional de carpintería de ribera de Albaola, ha sido el instructor a cargo de la restauración, apoyado en todo momento por un comité de seguimiento. Todos los aprendices de la escuela han participado en una fase u otra en este trabajo. Recalcar además que tanto voluntarios procedentes de todo el mundo, como los candidatos a aprendices de los últimos tres años, han participado activamente dejando su granito de arena en la recuperación del patrimonio marítimo vasco.

El hecho de haber trabajado sin los planos originales y no tener ningún documento guardado relativo al barco ha sido un reto y una oportunidad de aprendizaje para todo al que haya colaborado en este proyecto. Hubo un proceso de investigación basado en las fotografías de la época para sacar las medidas originales para poder hacer las reparaciones necesarias. Dicha investigación fue posible gracias a las imágenes de grandísimo valor conservadas en la colección Kutxateka de Kutxa Fundazioa.

Tras un largo camino, el Guipúzcoa estará expuesto en Pasaia Itsas Festibala, que se celebrará del 9 al 12 de mayo, en la lonja de Pasai San Pedro, donde por primera vez se podrá contemplar la restauración realizada en Albaola Itsas Kultur Faktoria.